

Banderak eta banderak

Koldo Sagasti

Atzean geratu dira Olinpiar Jokoak eta bi astebetez hamaika kirolari ikusi ditugu elkarrekin lehia sanoan, nor bere herrialdeko bandera defendatzen. Gustu guztietako entseinak izan dira norgehiagoka: koloretsuak batzuk, exotikoak besteak, atlasean bilatu beharrekoak beste batzuk, eta beste zenbait odol arrasto bat atzean dakartenak. Nik, egia esan, ez ditut sekula oso gustuko izan ikur-erakustaldi horiek; banderek ez di-date inoiz loa eragotzi, trapu koloreztatuak baino ez zaizkit iruditzen. Baina bada azkenaldian Mauro Entrialgo komikigileari irakurritako gogoeta bat zer

pentsatu eman didana. Marrazkilariak zioen kalean hamarnaka laguneko talde bat ikusten baduzu, eta ostadarreko banderak badaramatzate, lasai begiratu diezula, eta irribarre bat ere ateraraziko dizutela; eta aitzitik; hamarnaka horiek Espainiako gorri-horiak badaramatzate, alerta egoeran jarriko zaituztela; eta areago; gutxiengo etniko, politiko, sexual edo linguistiko bateko kidea bazara, ikaratu ere egingo zaituztela. Senak berak diosku LGTB mugimenduarena eta piperpotoa ez direla berdinak, akaso oihal hutsak ez direlako; banderek, koloretako trapuak badi-ra ere, zama historiko bat dakartelako

atzean, bandera horiek daramatzatenek bezala.

Behinola, Tel Aviveko judu anarkisten talde bateko kide batekin izandako elkarriketa batean, solaskideak azaldu zidan zergatik, akrata izanagatik, Palestinako bandera zerabilen Zisjordaniako harresiaren aurkako protestetan. Ekin-tzaileak zioen Palestinako entseinak bali-zko estatu baten ikurra baino gehiago giza eskubideen aldeko aldarri unibertsala irudikatzen zuela. Geroztik neuk ere neuretzat hartu nuen haren arrazoi-bide hori; izan ere; banderak, azken batean, banderak baino ez dira, baina badi-ra banderak eta banderak. •

Gazte arduragabeak

Xabier Izaga
Gonzalez

Gazteekin akordatu nintzen. Zehatzago esateko, azkenaldion telebista-irratietan eta kaleko jende askori, tartean lagun bati ere gazteen gainean entzundakoak etorri zitzaizkidan gogora: arduragabeak, burugabeak... errudunak. Administrazioen eta gure egonezinaren eta ezintasunaren errudunak.

Ikusita nago, bai hortan, gazte arduragabeak; ez dakit heldu arduragabe adina, ordea. Eta ikusita nago pandemia hasieran, itxialdi betean, hainbat gazte batetik bestera adineko jendearentzako edo etxetik irteterik ez zuten beste lagun-

tzako erosketak eta bestelako enkarguak egiten.

Uztailaren erdi aldera ekitaldi bat izan zen Lekeition, Julen Atxurra Egurrola *Pototo* herriko semeak 25 urte bete zituela eta kartzelatuta. Joseba Tapia, Aiora Renteria eta beste zenbait musikarik parte hartu zuten herriko parkeko kontzertuan. Parkearen gainetik, Karraspio hondartzarako bidean zehar pasieran zihoztenek musika entzuten zuten eta batzuk geratu egiten ziren.

Haietako bat, 60 urte inguruko gizona, behera jaitsi eta sarrerak salgai zuden mahaira gerturatu zen. Neska-mutil

taldetxo bat zegoen bertan. Sarrerak zenbatean saltzen zituzten galdetu zien. Sei euroan, erantzun zioten, baina kontzertua amaitzear zegoela eta ikus-entzule batzuk orduko joan zirenez leku batzuk libre zeudela, ordaindu gabe sarzedila. Gizonak, baina, sarrera bat emateko esan zien atzera berriro; gainera, goitik entzuten egon zela. «Eskerrik asko!», neska-mutilek, eta gizonak sei euroak emanaz batean: «Eskerrik asko? Zergatik? Eskerrik asko zeuei, sei euro baino gehiagoren lana egin duzue eta!».

Eta niri «gazte arduragabeen» gaineko alamenak gogoratu zitzaidan. •